



Garbiñe Aranburuk Ainhoa Etxaideren lekukoa hartu du idazkari nagusi gisa. LABen 9. Biltzar Nagusiaren amaiera ekitaldian hartu du hitza, eta mobilizaziorako deia egin du idazkari nagusi gisa egindako lehen agerraldi publikoan. "Mobilizatu, benetako kontrabotere izateko. Instituzio eta patronalaren arteko sinbiosiarekin amaitzeko eta instituzioetatik herritarren gehiengoaren mesedetan izango diren politikak egin daitezten. Benetako herri boterea izan gaitezen"; nabarmendu du.

[Aho batez onartu da Ainhoa Etxaidek aurkeztutako azken bost urteetako balantzea Garbiñe Aranburu izango da sindikatuko hirugarren idazkari nagusia, botoen %91,5eko babesarekin](#)

▣ **[9. Biltzar Nagusia. Maiatzak 25aren kronika](#)**

▣ **[M3ko biktimak gogoan eta Errekaleor Bizirik aldarrikapena Gasteizko LABen 9. Biltzar Nagusian](#)**

[Rafa ere gurekin da 9. Biltzar Nagusian](#)

— "Mobilizatu egin behar dugu, patronalaren boterea mugatu eta bizitzaren prekarizazioari aurre egiteko. Sindikatuak langileen tresna izan behar du. Horretarako sindikatua berritzera goaz, Biltzar Nagusian hartutako erabakiekin langile subjektua berrosatu eta prekarietatearen kontrako borrokaren lehen lerroan kokatzera goaz"; Garbiñe Aranbururen hitzak dira hauek, LABeko idazkari nagusi gisa egindako bere lehen agerraldi publikoan esandakoak.

Hala, gogoan izn ditu, besteak beste, soldatapeko langile, lan munduan sartu atera dabilen gaztea, prekarietatea modu berezitan pairatzen duen emakumea, langabe, pentsionista, etxeko langile, autonomo faltsu, migrante, bekarioak eta enplegu zentro berezietan lan egiten dutenak. "Guztiek sentitu behar dute euren borrokak aurrera eramateko tresna dela LAB";, adierazi du.

Mobilizazioa ezinbestekoa dela berretsi du, "gai ekonomiko eta sozialak erabakitzeko ahalmen osoa izan dezan Euskal Herriak. Estatu propio bat izan dezagun, estatura eramango

gaituen burujabetza prozesuan aurrera egiteko eta Estatus Politikoaren eztabaidan iruzur berri bat ekiditeko;

Euskal Herrian posizioak argi daudela berretsi du: "EAJk Madrilgo Gobernuari aurre ez egitea ez da ausardia politiko falta, estatuarekiko menpekotasun harreman hori ontzat ematen dute, PPren eta patronalaren proiektu neoliberal bera partekatzen dutelako";

Euskal Herrian, sindikatuaren apustua ezkerrean, eragile sindikal, sozial eta politikoen artean aliantzak eraikitzea dela jakinrazi du, "ardatz soziala nagusi izango duen burujabetza prozesua martxan jarri behar delako, denborarik galdu gabe";

LAB aliantza berriak eraikitzeke urratsak ematen ari dela esan du: "Bidea egiten ari gara eta LABentzat garrantzia berezia du ELAekin eta euskal gehiengo sindikalarekin egin beharreko aliantzak, patronalarekin dugun borrokan indar korrelazio askoz hobean kokatzen garelako. Herri honek behar duen burujabetza prozesuari eduki soziala emateko. Langileek burujabetza prozesu horrekin bat egin dezaten, eragile aktibo izan behar dugulako";

Konpromiso berriak hartu behar direla nabarmendu du: "Orain da eztabaida politikoa baldintzatzeko garaia, langileok ezin dugu iruzur berririk onartu. Egoerak eta momentuak eskatzen duen erantzukizun eta ardurarekin erantzun behar dugu. LABek eta ELAk estrategia desberdinak ditugu eta hori guztiz da zilegi, bi proiektu sindikal gara, baina bakoitza, bere estrategian gotortu ordez, ausartak izateko momentua da, arriskatzeko momentua da, langileek behar dutelako, herriak behar duelako. Eta LABek bere indar gutzia jarriko du horretan";

Agerraldian, Rafa Diez idazkari nagusi ohiarentzat eta euskal preso politikoentzat izan ditu hitzak: "Rafa gure artean izan beharko luke, eta, Rafa aipatuta, ezin utzi aipatu gabe preso eta iheslari politikoak. Hurrengo Biltzarrean presorik ez egotea da gure nahia. Estatuen betoak gainditzeko armagabetzearekin egin bezala, herriak inplikatu behar du. Horrela bada, lortuko dugu";



Ainhoa Etxaide eta Jabi Garnikari ere zuzendu zaie, lekukoa pasatu berri duten idazkari nagusi eta idazkari nagusi ondoko ohiei: "Nire hurrengo hitzak Ainhoa eta Jabirentzat. 2008an zuzendaritza osoa goitik behera aldatu orduko, eta arnasa hartzeko ere astirik gabe, azken urteotan kapitalak gure herriaren aurka egin duen erasoaldirik basatienak gure lehentasunak, plangintzak eta agenda hankaz gora jarri zituen; eta hala, krisialdi betean

sindikatuan lemazain izan zineten. Urte zailak izan dira langileontzat, urte zailak sindikatuarentzat ere, baina maisuki eman diozue segida aurretik Rafak eta bere taldeak eginiko lanari".

—